



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Meñakako Udala****2020ko ekitaldiko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Udal Zergaren Errolda**

2020ko maiatzaren 28an Alkateak emandako Dekretuaren bidez ondorengo ebazpena hartu da:

Lehenengoa: Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Udal Zergaren Errolda onartzea, 2020. ekitaldiari dagokiona.

Bigarrena: Jendaurrean azaltzea hamabost egun balioduneko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan, epe horretan interesdunek azter dezaten. Zergadunen errolda jendaurrean jarritz, errolda osatzen duten kitapen guztiak jakinarazitzat jotzen dira. Erroldetan sartzeko egintzen aurka edo bertan dauden datu aldaketen aurka, bai eta hala jakinarazitako likidazioen aurka ere, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da, ordaintzeko borondatezko aldiaren edo hilabeteko epean hura amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hirugarrena: Ondoko zergaldia zehaztea:

— Borondatezko epea: 2020ko ekainaren 15etik irailaren 15erarte, biak barne. Ordainketa helbideratuta duten zergadunei 2020ko ekainaren 30ean kargatuko zaie banku-kontuan.

Ordainketa Kutxabank-eko edozein bulegotan jendearentzako ordutegiaren barruan egin daiteke, beti ere dagokion inprimaki sorta aurkeztuz. Inprimaki sorta ez eskuratzeko ez du esan nahi ordaintzetik aske geratzen denik. Zergadunek, horrelakoetan, udal bulegoetan galdetu beharko dute zergatik ez dituzten orriak jaso eta zerga nola ordaindu behar duten.

— Betearazpen aldia: Zerga hau guztira ordaindu gabe borondatezko epea amaitu ondoren, ordaindu gabeko zorra premia- bidez kobratzeko epea irekiko da automatikoki

Meñakan, 2020ko maiatzaren 28an. — Alkatea, Aitor Ugarte Torre